

LITERATURA > LIBURUAK

Zapiain eta zimino


BEÑAT SARASOLA

Markos Zapiain, egun kasik telebista izarra izatera ailegatu bada ere, lehenago *Euskaldunon Egunkaria*-n eta egindako literatur kritikengatik zen ezagunagoa euskal letren mundu honetan. Gerora, literatur iruzkin horiek *Errua eta maitasuna* liburuan bilduko zituen eta ordutik bere blogean — <http://eibar.org/blogak/zapiain> — jartzen ditu bere gogoeta literario eta ez-literarioak. Zapiainek erakusten du euskal kritikan beste inork baino hobeto kritika zeinen gertu dagoen sormenetik. Izan ere, bere testu orotan aurkituko duzu harrituko zaituenik; dela konparazio ezinezko bat, dela komentario ezusteko bat, dela hitz-joko bitxi bat. Kritika egiteko modu berezi eta pertsonala, inondik ere.

Eta liburu honetan ere ezaugarriok guztiok topatzen ahal dira; hainbeste ezen galdegin baikenezake Txillardegirengandik zenbat dagoen bertan eta zenbat Zapiainengandik. Eta kontuak irundarraren alde egingo zukeelakoan nago. Horregatik esan beharra dago, ezer baino lehen, liburu hau

Txillardegiren liburu bakar bat irakurri gabe irakur daitekeela (donostiarraren obraren errepa-soa egiten duen *Eleberriak* atala barne). Akaso ez da gomendagarriena izango, noski, baina *Txillardegiren obraren buruzko estudio zehatz eta akademikoa*, gehiago da Txillardegiren obraren gaineko irakurketa pertsonal eta originala. Izenburuari erreparatu gero, liburua azterketa tematologikoa izatera deitua dago, hots, donostiarraren obran ziminoaren presentziari buruzko ikerketa izateraredo; alabaina, liburuak muga horiek gainditzen ditu guztiz. Ziminoarena neurri batean aitzakia bat da beste kontu askori buruz hitz egiteko, nahiz eta oroz gain gizakiaren eta animalien arteko mugari buruzkoa den liburuan gehien lantzen den gaia.

Zapiainen estilo berezi horretan umorea da elementu garrantzitsuenetako bat. Sarritan irakurleak galdegingo dio bere buruari ea idazlea adarra jotzen ari ote zaion, zeren muga ez baizik mugaren muga da berari haustea gustatzen zaiona. Ildo horretan, bereziki erudugarriak dira zoofiliari eta eskatologiari eskaintzen dizkion



■ 'Txillardegiren obraren buruzko estudio zehatz eta akademikoa'

Egilea: Markos Zapiain.

Argitaletxea: Susa.

Urtea: 2007.

orrialdeak («Zaldiari eta behiari legez, ziminoari ez zaio inporta kaka eginean dagoela begietara begiratzea»). Umorezko momentu hauetan eta testuetan inork topatuko ez lituzkeen gauzak aurkitzen da bereziki abila. Horregatik, eztabaida estandar eta ohikoagoak aztertzen dituenean eta judizio

estetikoak eman behar dituen gehienetan hankamotz geratzen dela iruditzen zait. Txillardegiren Atxaga eztabaidaren analisia nahiko dezepzionagarria da, baita *Putzu-Hamaika pauso* konparaketa ere.

Putzu-ren gainean Zapiainek berak Iban Zalduarekin edukitako eztabaidak aditzera ematen du irundarrak ez duela ulertzen kritika balorazio gisa («diburuen kritikan, batzuek epaitzea lehenesten dute; beste batzuek, berriz, ateratzea, atzematea», eta berak, esan gabe doa, bigarren multzoan kokatzen du bere burua), eta horregatik, balorazioak egin behar izaten dituen gehienetan pobre samar geratzen dira bere iruzkinak. Hala ere, liburu honetan momentu bakan batzuk baino ez dira gisa honetakoak, irri egitekoak eta zenbait ohar txundigarriekin gozatzekoak gailentzen baitira oro har. Aipagarria da, halaber, bere informazio iturrien heterodoxotasuna; filosofo kontsokratuetatik (Adorno, Deleuze...) *Eibartarrak* foroko emakume anonimo baterainokoak.

Liburuaren izenburuak *ladrillo* bat konnotatu lezake, beharbada, baina uste dut nahikoa dela liburu hartu eta begiratu bat ematea *ladrillo* baten ezean liburu aski berezi eta kurioso baten aurrean gaudela ohartzeko.

>> bsarasola@berria.info



■ 'Ohe deseginak'

Egilea: Patxi Zubizarreta.

Argitaletxea: Kutxa Fundazioa.

Urtea: 2008.

Antzerkiaren arloko Donostia Hiria saria irabazi zuen Patxi Zubizarretak *Ohe deseginak* antzerki lanarekin, eta orain liburuak plazartu dute. «Ohea da ardatza, objektu fisikoa eta sinbolikoa», azaldu du Zubizarretak. «Oheratzen garenean bikotekidearekin hurbil gaude elkarrengandik, baina non gaude? Beharbada oso urrutiti. Familia burges bat baliatzen dut kontzeptu horiek agertzeko».



■ 'Aiako'

Egilea: Edu Zabala. Argitaletxea:

Hiria. Urtea: 2008.

Aiako Harriaren jatorri magikoa kontatzen duen nobela fantastikoa da Edu Zabalaren *Aiako*. Ilunpeetako jeinu baten izena da Aiako. Bere meneko dituen intxixuen bidez, argiaren mundua bereganatzen saiatuko da Aiako, eta magia horren inguruan euskal leinuak lehian ariko dira Txingudiko badiaren mugetan, orain zeltekin, orain beren artean.

Marikita TAMBOURIN

SINGAPURREKO GUTUNAK



Maiatz

■ 'Singapurreko gutunak'

Egilea: Marikita Tambourin.

Argitaletxea: Maiatz. Urtea: 2008.

Kania eta *Abu ala Ali*-ren ondotik, hirugarren eleberria du *Singapurreko gutunak* Marikita Tambourin baigorriar idazleak. Kutxa batean gutun zahar batzuk aurkitu ditu kontalariak, eta, gutun horiek irakurriz, gogoan Asiako paraje urrunetaraino eramaten dion amodio galdu baten istorioaren kontaketa egin du topo.

>> bserrano@berria.info

Platonen ikonoklasta

BIXENTE SERRANO IZKO

Karl Popper, gure akademikoek izen ezin itsusiagoarekin euskaratu duten gnoseologiaren filosofoa: *faltsazionismo*arena alegia; erran nahi duena jakintzak ez duela balio absoluturik, behin-behinekoa baizik, une bateko eza-gupenak geroko aurkikuntzek zuzendu edo aldatu artean egiazat har daitezkeela. Popper, ondorioz, erlatibismoaren kontrako filosofoa: gure egiak ezin baitaitezke absolutuak, guztiz ziurrak, izan, baina ezta erlatiboak ere. Popper, totalitarismo eta kolektibismoen kontrako filosofoa, dela arrazaren izenean (nazismoa jomugan), dela ideologia baten izenean (stalinismoa eta marxismoa ituan), irudikatua. Popper, determinismoen kontrako filosofoa. Popper, indibidualismoan oinarrituriko demokraziaren aldeko filosofoa, gobernuak iraultzarik gabe aldatu ahal daitezkeen. Popper, «pixkanakako gizarte-ingeniaritza»-ren («gizarte-eta instituzio-ingeniaritza», erranen nuke nik) aldeko filosofo politikoa, eta, nahi gabe ere, planteamendu teknokratikoei oinarri filosofikoa eman zien horixe. Eragin handikoa XX. mende amaieran,



■ 'Gizarte irekia eta haren etsaiak'

Egilea: Karl Popper.

Itzultzailea: Josu Zabaleta.

Jatorrizko izenburua: 'The open society and its enemies'.

Argitaletxea: Pentsamenduaren Klasikoak.

Urtea: 2007.

kapitalismoa garaile atera zeneko garaietatik hona, gaizki deituriko neoliberalismoaren zutabe filosofikotzat jo izanda. Haren lanetan hau dugu euskaraturiko bakarra, garrantzizkoenatariko bat, dudarik ez.

Josu Zabaletak euskaratu du meritu eskergaz. Bertan, Platon eta Marx hartu zituen ardatz Karl Popperrek totalitarismoak jipititzeko, bien ala bien ekarpen politikoak aztertuz. Euskaraz, zein mardula den *Gizarte irekia eta haren etsaiak* lana, bi zatitan ateratzea erabaki du argitaletxeak, eta lehena, Platoni buruzkoa, dugu gaurkoa. Honi filosofo politikoa gisa egiten dion kritika suntsitzailea da, guztiz ikonoklasta eta kilikagarria bere zorrotasunean (eskandalagarria ere platonismoaren estereotipo idealizatuarekin maitemindu guztientzat), totalitarismo guztien iturri intelektualtzat joz greziarra. Platonen *sofokrazia* (jakintsuen gobernu eredua) salatzen du gogor, haren atzetik asmo zehatz bat ikusiz: demokraziaren etsai (Espartako diktadura zale eta Atenasko demokraziaren aurkari) dugu Popper-en Platon. Honek, Popper-en uste zorrotzean, Historiaren bilakaera geldiarazi nahi bere ideien eta itzalen filosofian oinarriturik, eta aristokraten esku jarri gura izan zuen betiko gobernu, leinu garbikoak zirelakoan Leize-zuloaren Fabulako ideia perfektu eta beñetakoan lehen itza-

lak, perfekziotik hurbilenak, onenak; eta demokratek eta jende arruntek itzal horien lausotzea, endekatzea baizik islatzen ez zutelakoan. Platon bera, jakina, leinu garbikoan semea ei zen.

Azterketa sakonean zehar, ez sistematikoki baina kritikaren kontrapuntua, alternatiba, aletzen doa Popper, bere *pixkanakako gizarte-eta instituzio-ingeniaritza* alegia. Horretan daude, ene ustez, Popper-en kontraerrian batzuk. Platonen sofokraziatik hurbilegi nonbait, historiaren bilakaera geldiarazi ez, baina baimantsotzeko; eta Platonen *sofokrazia*-tik hurbilegi dirudielako azken buruan Popperrengan sustaiak erroto dituen teknokraziak. Susmatu du, ongi susmatu ere, Popperrek Platonen ideien klase-jatorria, baina klaserik gabeko gizarte batean egonen bagina bezala planteatzen du bere «pixkanakako gizarte-ingeniaritza» alternatiboa (klase-borroka denez Popper-en mamu politiko bat).

Merkatu murrizta izanen du liburuak gure artean. Ezer gutxi, mundu akademikotik kanpo. Baina irakurgarritasun polita lortu du itzultzaileak, eta gaurko arazo politikoei buruzko teoriak kezkatzen duten edozein irakurlek, filosofian aditua ez izanik ere, badu hausnartzeko zuhain-landare freskoa.